**2673**

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 23koa, Inmigrazio zuzendariarena, immigrazio-teknikarien kontratuen jarraitutasunerako atzerriko Tokiko Erakundeentzako laguntzak finantzatzeko aurrekontu-kredituaren zenbatekoa zehazten duena. Adierazitako laguntzak apirilaren 17ko 61/2007 Dekretuan ezarri ziren, eta dekretu horren bitartez, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren eremuetan jarduerak egiteko laguntzak arautu ziren.

AURREKARIAK

Immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren eremuetan jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen apirilaren 17ko 61/2007 Dekretuak (2007ko maiatzaren 2ko EHAA) etorkinentzako harrera-sarea duten Tokiko Erakundeentzako laguntzak arautzen ditu. Tokiko Erakundeentzako aurreikusitako laguntzen artean ezartzen da, besteak beste, dauden immigrazio-teknikarien kontratuen jarraitutasunerako laguntzak eman behar direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura.

Adierazitako Dekretuaren 2. artikuluak ezartzen du, Inmigrazio zuzendariak emandako Ebazpenaren arabera, urtero zehaztuko dela immigrazio-teknikarien kontratuen jarraitutasuna finantzatzera bideratutako aurrekontu-kredituen zenbatekoa. Hori guztia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Immigrazio-teknikarien kontratuen jarraitutasuna finantzatzeko laguntzetara bideratutako aurrekontu-kreditua, 2008. urterako, 555.734 eurokoa da.

Immigrazio-teknikariak kontratatzeko emango den laguntzaren gehienezko zenbatekoa 33.344 eurokoa izango da pertsona bakoitzeko.

***Bigarrena.***– Kontratuaren jarraitutasuna zehazteko, apirilaren 17ko 61/2007 Dekretuan ezarritako baldintzez gain, 2008ko urtarrilaren 1eko ratio hauek hartuko dira kontuan:

a) Erroldatutako Europar Batasunetik kanpoko 500 eta 1.500 pertsona bitarte: teknikari bat.

b) Erroldatutako Europar Batasunetik kanpoko 1.500 pertsonatik gora: hiru teknikari gehienez ere.

c) Arrisku-egoeran edo babesik gabe dagoen eta kideen integrazio eta garapen pertsonala eta soziala eragozten duten zailtasunak arintzeko berariazko esku-har-

**2673**

RESOLUCIÓN de 23 de abril de 2008, del Director de Inmigración, por la que se determina el importe del crédito presupuestario destinado a financiar las ayudas a las Entidades Locales para la continuidad de la contratación de personal técnico en inmigración, que se establecen en el Decreto 61/2007, de 17 de abril, por el que se regulan las ayudas para la realización de actividades en los ámbitos de la inmigración y de la convivencia intercultural.

ANTECEDENTES

El Decreto 61/2007, de 17 de abril, por el que se regulan las ayudas para la realización de actividades en los ámbitos de la inmigración y de la convivencia intercultural, publicado en el BOPV del 2 de mayo de 2007, regula las ayudas a las Entidades Locales que cuentan con una red de acogida a personas inmigrantes. Entre las ayudas previstas dirigidas a las Entidades Locales, se establece la necesidad de contribuir a la continuidad en la contratación de personal técnico en inmigración ya existente, con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En el artículo 2 del mencionado Decreto se establece que anualmente, mediante Resolución del Director o Directora de Inmigración se fijará el importe de los créditos presupuestarios destinados a financiar la continuidad de la contratación de personal técnico en inmigración, debiéndose dar publicidad de ello en el Boletín Oficial del País Vasco.

En su virtud,

RESUELVO:

***Primero.***– El crédito presupuestario destinado a las ayudas para financiar la continuidad de la contratación de personal técnico en inmigración, para el año 2008 es de: 555.734 euros.

La cuantía máxima de la ayuda para la contratación de personal técnico en inmigración será de 33.344 euros por persona.

***Segundo.***– Para determinar la continuidad en la contratación, además de los requisitos establecidos en el Decreto 61/2007, de 17 de abril, se atenderá a los siguientes ratios, a fecha de 1 de enero de 2008:

a) De 500 a 1.500 personas extracomunitarias empadronadas: un/a técnico/a.

b) A partir de 1.500 personas extracomunitarias empadronadas: hasta tres técnicos/as.

c) En caso de acreditarse la existencia de un colectivo de personas extranjeras en situación de riesgo o de desprotección que requiera una intervención específica

tzea behar duen atzerritarren kolektibo bat dagoela egiaztatzen bada: teknikari bat.

*Hirugarrena.*– Apirilaren 17ko 61/2007 Dekretuaren 21. artikuluaren arabera, dagokion eskabidearen bitartez alderdiren batek eskatzen duenean ekingo zaio laguntzak emateko prozedurari. Adierazitako eskaera eranskinean azaltzen den inprimaki-eskabidea beteta egingo da, eta Inmigrazio Zuzendaritzari –Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz)– igorriko zaio eskabidean azaltzen den dokumentazioarekin batera.

*Laugarrena.*– Honako hauek izan daitezke laguntza horien onuradunak: 2007. urtean kontratupeko immigrazio-teknikariak izan dituzten udalerriak, mankomunitateak, partzuergoak, eskualdeak, eskualde mailako garapen-agentziak, toki mailako udalaz gaindiko erakundeak edo Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien elkarteak, betiere apirilaren 17ko 61/2007 Dekretuan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

Administrazio-bidea agortzen ez duen Ebazpen honen aurka Gora jotzeko Errekurtsoa jarri ahal izango dio interesdunak Gizarte Gaietako sailburuordeari hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 23a.

Inmigrazio zuzendaria,
JOSÉ ROBERTO MARRO IBARRA.

con el fin de paliar las dificultades que impiden la integración y el desarrollo personal y social de sus miembros: un/a técnico/a.

*Tercero.*– De conformidad con el artículo 21 del Decreto 61/2007, de 17 de abril, el procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará a instancia de parte mediante la correspondiente solicitud, cumplimentando el formulario de instancia que se incorpora como anexo y que deberá dirigirse a la Dirección de Inmigración, Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, calle Donostia-San Sebastián, 1, 01010, Vitoria-Gasteiz, junto con la documentación señalada en el mismo.

*Cuarto.*– Pueden ser beneficiarios de estas ayudas municipios, mancomunidades, consorcios, comarcas, agencias de desarrollo comarcal, entidades supramunicipales de carácter local o agrupaciones de municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que hayan tenido contratado personal técnico en inmigración en el año 2007, siempre que se cumplan los requisitos y condiciones establecidos en el Decreto 61/2007, de 17 de abril.

Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá el interesado interponer recurso de alzada, ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de abril de 2008.

El Director de Inmigración,
JOSÉ ROBERTO MARRO IBARRA.

ERANSKINA

TOKIKO ERAKUNDEEK IMMIGRAZIO TEKNIKARIEN KONTRATUEN JARRAITUTASUNERAKO DIRU LAGUNTZAK ESKATZEKO ESKABIDEA. 2008. URTEA

........................................................................................................................................................ jaun-andreak,
........................................................................ Erakundearen ...................................... izanik, LH: ......................................
kalea: ......................................................................................................................................... PK: ..................
Tel.: ...................................... E-maila: ............................................................................... Fax-a: ......................................
IFK: ...................................... Bankua edo Aurrezki Kutxa: ..............................................................................................
Agentzia: ................................................................................................................................. Kontu-zk.: ..................

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Apirilaren 17ko 61/2007 Dekretuan azaltzen diren baldintzak betetzen ditu. Adierazitako Dekretuaren bitartez, immigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren eremuetan jarduerak egiteko laguntzak arautzen dira. Dekretu hori 2007ko maiatzaren 2ko HAEEn argitaratu zen, 83 zenbakian.

Bigarrena.– Eskabidearekin batera, deialdi hau arautzen duten dekretuan eta ebazpenean azaltzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak eta gainerako justifikazioak aurkeztu ditu.

ESKATZEN DU:

............................................................................................................................................ euro-ko zenbatekoa emateko
.................. immigrazio-teknikari kontratatzeko.

......................................, 2008ko ......................................aren ...................(a).

ESKATZAILEA

EUSKO JAURLARITZAREN INMIGRAZIO ZUZENDARIA

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN ZERRENDA

a) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

b) Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren eta 2008ko urtarrilaren 1ean udalerrian edo udalerrietan erroldatuta dauden pertsonen kopuruaren ziurtagiri ofiziala, bertan pertsona horien jatorria, sexua eta adina adieraziz.

c) Erakunde eskatzaileak 2007. urtean kontratatuta izandako immigrazio-teknikarien kopuruaren eta lanbide-kategoriaren eta hautaketa-prozesuaren emaitzaren ziurtagiri ofiziala, bertan kontratatutako langilearen lanbide-profila adieraziz.

d) Hala badagokio, immigrazio-teknikarien lanpostuak betetzeko 2008. urtean deitu nahi den hautaketa-prozesuaren oinarriak.

e) Kontratatuta dauden edo kontratatuko diren teknikarien eginkizunen memoria.

f) Erakunde eskatzailea zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela biltzen duen ziurtagiri ofiziala, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenen arteko Seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

g) Helburu bererako bestelako finantzazio-iturriak dauden edo ez dauden egiaztatzen duen ziurtagiri ofiziala, eta, hala badagokio, ebazteke dauden laguntza-eskabideak egiaztatzen dituena.

h) Baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten eta deialdi honetan aurreikusitako laguntzen eskabidea aztertzeko interesgarriak diren beste dokumentu batzuk.

*ANEXO*

*SOLICITUD DE AYUDAS ECONÓMICAS PARA LA CONTINUIDAD DE LA CONTRATACIÓN DE PERSONAL TÉCNICO EN INMIGRACIÓN POR PARTE DE LAS ENTIDADES LOCALES. AÑO 2008*

*D./D.ª ..........................................................................................................................*
*en calidad de ........................................................................................................ de la*
*Entidad ...................................................................................... TH ..............................*
*calle ............................................................................................................. CP ...............*
*Tlf.: .................................... E-mail ................................................................. Fax ...............................*
*CIF ..........................................................................................................................*
*Banco o Caja de Ahorros ...................................................................................................*
*Agencia ................................................................................................ N.º de cuenta ..................*

*EXPONE:*

*Primero.– Que reúne las condiciones exigidas en el Decreto 61/2007, de 17 de abril, por el que se regulan las ayudas para la realización de actividades en los ámbitos de la inmigración y la convivencia intercultural, publicado en el BOPV n.º 83, de fecha 2 de mayo de 2007.*

*Segundo.– Que acompaña a la solicitud, los documentos y demás justificaciones acreditativos del cumplimiento de las condiciones a que hace referencia el decreto y la resolución por la que se regula la presente convocatoria.*

*SOLICITA:*

*Le sea concedida la siguiente cantidad ........................................................................................... euros*
*para la contratación de ..................personal/s técnica/s en inmigración.*

*En ....................................., a .................. de ..................................... de 2008.*

*EL/LA SOLICITANTE*

*ILMO. SR DIRECTOR DE INMIGRACIÓN DEL GOBIERNO VASCO*

*RELACIÓN DE DOCUMENTACIÓN QUE HA DE APORTARSE*

*a) Fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.*

*b) Certificado oficial del número de personas no originarias de la Unión Europea o del espacio Económico Europeo empadronadas en el o los municipios a fecha de 1 de enero de 2008, en el que conste su origen, sexo y edad.*

*c) Certificado Oficial que exprese el número y la categoría profesional del personal técnico en inmigración que ha estado contratado en 2007 por la entidad solicitante, resultado del proceso de selección e indicación del perfil profesional de la persona contratada.*

*d) En su caso, bases del proceso de selección que se pretende convocar en 2008 para la cobertura del /de los puesto/s de técnico o técnica en inmigración.*

*e) Memoria de las funciones del personal técnico contratado o a contratar.*

*f) Certificado Oficial de que la entidad solicitante no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de Mujeres y Hombres.*

*g) Certificado Oficial de la existencia o no de otras fuentes de financiación para el mismo fin, cuantía de la misma y, en su caso, de las solicitudes de ayuda pendientes de resolución.*

*h) Otros documentos acreditativos del cumplimiento de los requisitos y que sean de interés para el examen de la solicitud de ayudas previstas en la presente convocatoria.*